

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5388

35/2014 EBAZPENA, azaroaren 19koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako hitzarmen batzuk argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, zabalkunde egokia izan dezaten, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hitzarmen hauen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Querétaroko Estatu eta Euskal Autonomia Erkidegoa elkar ulertzeko Memoranduma. I. eranskinean jasotzen da.

– Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzeta-hitzarmena. Helburua: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari buruzko «Beldur Barik» erakunde arteko kanpaina garatzea eta elkarrekin finantzatzea. II. eranskinean jasotzen da.

– Kontsumobide eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzako esparru-hitzarmena. Helburua: elkarlanean jardutea, honako eremu hauetan guztietan: erantzukizun soziala, iraunkortasuna, ezagutzaren gardentasuna, baloreetan oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza. III. eranskinean jasotzen da.

– Droga-mendetasunaren gaien 1999ko ekainaren 2an Osasun, Politika Sozial eta Berdintasun Ministerioarekin (Drogen Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritza) izenpetutako Lankidetzako Protokolo Orokorren 2014. urterako hitzarmen espezifiko. IV. eranskinean jasotzen da.

– Carlos III Osasun Institutuarekin lankidetzeta-hitzarmena. Helburua: Osasun Sistema Nazionalaren prestazioak eta osasun-teknologiak aztertzeke jarduerak garatzea. V. eranskinean jasotzen da.

– Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarekin lankidetzan jarduteko berariazko hitzarmena, osasuneko ikerketa-proiektuetarako laguntza-deialdiaren ebaluazio zientifiko teknikoa egiteko (Ebaluaziorako eta Prospektibarako Espainiako Agentziak egingo du aipatutako ebaluazioa). VI. eranskinean jasotzen da.

– Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekiko lankidetzako esparru-hitzarmena, kartografia, geodesia eta lurralde-informazioari buruzkoa. VII. eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 19a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

I. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA
QUERÉTAROKO ESTATUA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ELKAR ULERTZEKO
MEMORANDUMA

Querétaroko Estatua gobernadoreak ordezkatu du, José Eduardo Calzada Rovirosa lizentziatuak;

Euskal Autonomia Erkidegoa, berriz, lehendakariak, Iñigo Urkullu Renteria jaunak.

Hemendik aurrera «aldeak» izango dira.

Kontuan hartzen dute interes handia dutela dauzkaten adiskidetasun- eta lankidetzaloturak sakontzeko, ordezkatzeko dituzten herrien arteko loturak areagotzeko;

Aitortzen dute lankidetzajarduerak garatu nahi dituztela, bakoitzak bere lege-xedapenen barruan, bereziki nabarmenduta enpresen arteko trukean, I+G+b-an, kulturaren, hezkuntzan, turismoan eta bizitza-kalitatean daukaten interesa;

Adierazten dute lankidetzaharremanak sakondu nahi dituztela, esparru juridiko egoki baten bidez;

Sinetsita daude garrantzitsua dela mekanismoak sortzea alde biko lankidetzesparrua garatzen eta sendotzen laguntzeko, eta beharrezkoa dela beren komunitateen aurrerapen ekonomiko eta sozialean egiazko eragina izango duten proiektuak eta ekintzak gauzatzea;

Horrenbestez, honako hau erabaki dute:

1. artikulua.– Helburua.

Elkar Ulertzeko Memorandum honek zenbait oinarri eta jarraibide ezartzen ditu, aldeek lankidetzabereziko jarduerak, proiektuak eta programak batera gauza ditzaten, alde biko harremanak sendotu eta sakontzeko, ordezkatzeko dituzten pertsonen mesedetan.

2. artikulua.– Lankidetzalarloak.

Elkar Ulertzeko Memorandum honen helburua lortzeko, aldeek lankidetzajarduerak garatzera konprometitzen dira, eta jarduera horiek honako arlo hauetara egongo dira bereziki zuzenduta; ez, ordea, mugatuta:

a) Merkataritza, inbertsioak eta negozioak. Enpresen eta gobernuen arteko sustapen-topaketak, ekonomia-trukea eta enpresa-garapena bultzatzeko. Elkar Ulertzeko Memorandum honetan esku hartzen duten aldeek erabaki dute beren ahaleginak sektore ekonomikoetan lankidetzaproiektuak sustatzera bideratzea, eta bereziki garapena lortzen saiatzea honako sektore hauen mesedetan: automobilgintza, sektore aeroespaziala, etxetresna elektrikoak, elektronika, softwarea eta informazioaren teknologiak, energia berriztagarriak eta energia-efizientzia, makina-erreminta... Betiere baldintzak idatziz zehazten eta erabakitzen badituzte aldeek, eta lankidetzaproiektuan sartu baino lehenagokoak badira.

b) Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza. Aldeek lankidetzastatuko dute esparru honetan, aldeek zehaztutako lehentasunak garatzeko.

c) Kultura. Eskualdeetako kultura- eta tradizio-adierazpideen sustapena eta hedapena. Bereziki, Etxepare Institutuaren eta Kulturaren eta Arteen Querétaro Institutuaren arteko harremana

bultzatuko da, eta haiek unean-unean erabakiko dute nola gauzatu kultura-truke hori, batez ere esparru hauetan: musika, zinema, ikus-entzunezkoen sektorea eta arte plastikoak.

d) Hezkuntza. Aldeen ustez hezkuntza-arloko garapena oinarri nagusietako bat denez, hezkuntza sustatzeko jarduerak batera egitea bultzatuko da. Horretara, truke akademikoak eta, erakunde egokien bitartez, zerikusia duten bestelako jarduerak sortzeko eta sustatzeko aukera zabaltzen da, balioak partekatzeko, eta jardunbide sozialak eta akademikoak trukatzeko. Bereziki, ezagutza etorkizunean UCO-Mondragon unibertsitatearen bitartez hedatzeko lankidetzak sustatuko da.

e) Bizitza-maila eta -kalitate hobea. Aldeek, honako tresna honen bidez, adierazten dute esperimentuak trukatu nahi dituztela beren herritarren beharrak kolektiboki betetzea areagotzeko, politika sozialak erabiliz politika-, gobernu-, ingurumen-esparruan, ongizate subjektiboan eta genero-ekitatean.

f) Turismoa. Turismorako toki eta eskualde erakargarriak sustatzea, bi lekuak bisitatzeak dauzkan abantailak eta jolas-ezaugarriak zabaltzeko behar diren bitartekoen bidez, arlo horretan lehiakorragoak izateko helburuarekin.

g) Aldeek hitzartzen duten beste edozein arlo.

3. artikulua.– Lankidetzak bideak.

Elkar Ulertzeko Memorandum honetan aipatzen diren lankidetzak-jarduerak honako hauen bidez gauzatzea erabaki dute aldeek:

a) Sustapena eta zabalkundea.

b) Enpresen eta gobernuen arteko misioen trukea.

c) Informazioa, dokumentazioa eta materialak trukatzeko.

d) Azokak, mintegiak eta kongresuak antolatzea.

e) Azterketak eta ikerketak batera egitea.

f) Ikerlariak, teknikariak, adituak eta profesionalak trukatzeko.

g) Giza baliabideen prestakuntza eta gaikuntza.

h) Lantegiak, sinposioak eta konferentzia antolatzea.

i) Jardunbide hobekiak eta bikaintasun-kasuak ezartzea.

j) Aldeek hitzartzen duten beste edozein bide.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau gauzatzea ez da egongo aldeek lankidetzak bide guztietan proiektuak abian jartzearen baldintzapean, eta aldeak ez dira behartuta egongo lankidetzan aritzera barne-debekuren bat edo lege, araudi instituzional edo ohitura baten ondorioz debekuren bat duten jardueretan.

Aldeak hitzartzen dutenaren arabera bilduko dira, Elkar Ulertzeko Memorandum hau aplikatzearen ondoriozko alderdiak ebaluatzeko, eta alde bien intereseko proiektuak garatzeko gidalerro berriak proposatzeko.

Aldeek txostenak egingo dituzte Elkar Ulertzeko Memorandum honetan oinarrituta lortu eta garatutakoari buruz, eta kasuan kasuko agintariei jakinaraziko dizkiete, hala nola adostasunez erabakitzen dituzten alde biko instantziei.

4. artikulua.– Eskumena.

Aldeak Elkar Ulertzeko Memorandum honen III. artikuluan aipatutako lankidetza-bideak gauzatzera konprometitzen dira, bakoitzaren eskumenak, araudiak eta bakoitzaren gobernuaren direktiba politikoak eta ekonomikoak guztiz errespetatuz.

5. artikulua.– Lankidetza bereziko programak.

Elkar Ulertzeko Memorandum honen helburuak lortzeko, lankidetza bereziko programak egitea hitzartu dute aldeek, eta haiek prestatu ondoren, Elkar Ulertzeko Memorandum honen barruan sartuko dira, eta bakoitzean honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- a) landu beharreko helburuak eta jarduerak;
- b) lan-egutegia;
- c) helburu eta jardueretarako izendatutako pertsonen profila, kopurua eta egoera;
- d) alde bakoitzaren erantzukizuna;
- e) giza baliabideen, finantza-bitartekoen eta baliabide materialen esleipena;
- f) ebaluatzeko mekanismoa eta irizpideak; eta
- g) beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio.

Artikulu honetan aipatzen diren lankidetza bereziko programak lantzeaz gain, alde bakoitzak lankidetza-jarduerak gauzatu bitartean sortzen diren lankidetza-proposamenak egin ahal izango ditu.

6. artikulua.– Ikuskatze- eta koordinazio-mekanismoa.

Honako Memorandum honen babesean egiten diren lankidetza-jarduerak behar bezala koordinatu eta ikuskatzeko mekanismo bat izateko, hala nola hura modurik egokienean gauzatzen dela ziurtatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da, bi gobernuetako kanpo-gaietarako zerbitzuek zuzendua, eta aldeek erabakitako maiztasunarekin (gutxienez, urtean behin) eta lekuan bilduko dena, Elkar Ulertzeko Memorandum hau aplikatzearen ondoriozko alderdiak ebaluatzeko; batzorde horrek honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Behar diren erabakiak hartzea, Elkar Ulertzeko Memorandum honen helburuak betetzeko;
- b) Berariazko lankidetza-proiektuak landu eta egiteko interes komunek arloak identifikatzea;
- c) Elkar Ulertzeko Memorandum honetako jarduerak gauzatzeko bidezko gomendioak bideratzea, antolatzea eta adieraztea;
- d) Elkar Ulertzeko Memorandum honetako lankidetza-arloetan aurreratutakoari buruzko txostenak jasotzea, aztertzea eta, hala egokituz gero, onartzea; eta
- e) aldeek hitzartzen duten beste edozein zeregin.

7. artikulua.– Finantzaketa.

Elkar Ulertzeko Memorandum honek ez du inolako ondorio finantzariorik. Hala ere, finantzaketarik behar bada Memorandumaren barruko jarduerak garatzeko, tresna juridiko egokiak baliatuko dira, dagoen aurrekontuaren eta legeetan xedatutakoaren arabera.

Alde bakoitzak daukan parte-hartzeari lotutako gastuak ordainduko ditu, jarduera berezietarako bestelako finantzaketa-mekanismoak erabiltzeko aukera egon ezean, edo aldeek jarduera horietarako finantzaketa-konponbide bereziak hitzartu ezean.

8. artikulua.– Beste erakunde batzuen parte-hartzea.

Aldeek, egokitzat joz gero, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen parte-hartzea bultzatuko dute, haien jarduerak eragin zuzena badute lankidetzaren arloan, Elkar Ulertzeko Memorandum hau eraginkorki baliatzen lagunduko duten mekanismoak sendotu eta zabaltzeko.

9. artikulua.– Lan-harremana.

Alde bakoitzean Elkar Ulertzeko Memorandum honen barruko lankidetzaren jarduerak gauzatzeko mandatua jaso duten pertsonak kide den erakundearen zuzendaritzapean eta mende jarraituko dute; horregatik, ez da lan-harremanik sortuko beste aldearekin, eta hura inoiz ere ez da hartuko ordeko nagusitzat edo nagusi solidariotzat.

10. artikulua.– Langileak sartzera eta irtetea.

Aldeek behar diren gestioak egingo dituzte dagozkien agintariekin, behar diren erraztasun guztiak eman daitezkeen, lankidetzaren jardueretan eta Elkar Ulertzeko Memorandum honen ondoriozko lankidetzaren bereziko programetan esku-hartze ofiziala dutenak sartzeko eta ateratzeko. Esku hartzen duten horiek harrerako herrialdean indarrean dauden migrazio-, zerga-, aduana-, osasun- eta nazioaren segurtasun-xedapenen mende egongo dira, eta ezingo dute jardun beren eginkizunetatik kanpoko ezein jardueratan, arloan eskumena duten agintariek aurrez baimena eman gabe.

11. artikulua.– Aseguruak.

Aldeek sustatu egingo dute lankidetzaren ekintzetan parte hartzen dutenak aseguru medikoa, kalte pertsonalen aseguruak eta bizitza-aseguruak izatea, Elkar Ulertzeko Memorandum honen barruko lankidetzaren jarduerak egitearen ondorioz ezbeharren bat gertatzen bada, eta hura kalte-ordainaren merezidun bada, kasuan kasuko aseguru-erakundearen eskutik jaso dezan.

12. artikulua.– Jabetza intelektualak.

Elkar Ulertzeko Memorandum honen arabera garatutako lankidetzaren ekintzen ondorioz merkataritza-balioko produktuak eta/edo jabetza intelektualaren gaineko eskubideak sortzen badira, arloan aplikagarria den legedi nazionala beteko dute, bai eta aldeentzat lotesleak diren nazioarteko hitzarmenak ere.

13. artikulua.– Babestutako informazioa, materiala eta ekipoa.

Aldeek erabaki dute segurtasun nazionalagatik edo aldeetako edozeinen kanpo-harremanengatik babestuta eta sailkatuta dauden ekipoa, materiala eta informazioa, kasuan kasuko legedi nazionalaren arabera, ez direla transferituko Elkar Ulertzeko Memorandum honen barruan.

Elkar Ulertzeko Memorandum honetan oinarrituta abian jarritako lankidetzaren jardueretan babes-eta eta sailkapena behar dituzten edo haien beharra izan dezaketen ekipoa, materialak eta informazioak identifikatzen badira, aldeek agintari eskudunei jakinaraziko diete, eta horretarako neurri egokiak idatziz adieraziko dituzte.

Babestu eta sailkatu gabeko informazioa, materiala eta ekipoa transferitzean, haien esportazioa alderen batek kontrolatzen badu, legedi nazional aplikagarria kontuan hartu beharko da, eta transferentzia behar bezala identifikatu, bai eta haren erabilera edo geroko transferentzia ere. Alderen

batek beharrezkotzat jotzen badu, behar diren neurriak hartuko dira, baimendu gabeko transferentzia edo berrizko transferentzia eragozteko.

14. artikulua.– Beste tresna batzuk.

Elkar Ulertzeko Memorandum honetan aipatzen den lankidetzak ez du eraginik izango aldeek nazioarteko beste tresna batzuen bidez eskuratutako eskubideetan eta betebeharretan.

15. artikulua.– Desadostasunak ebaztea.

Tresna honen interpretazioan edo aplikazioan desadostasunik badago, Jarraipen Batzordeak erabakiko du.

16. artikulua.– Azken xedapenak.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau sinatutakoan jarriko da indarrean, eta bi urteko iraupena izango du; bi urte horiek tazituki berrituko dira beti beste bi urterako, alderen batek kontrakoa esan edo bi aldeek ez berritzea erabaki ezean.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau aldean idatzizko adostasun bidez aldatu ahal izango da, izapide egokiak egin ondoren. Aldaketak adierazten dituzten dokumentuak Elkar Ulertzeko Memorandum honen gehigarri bihurtuko dira, eta haren parte izango dira.

Edozein alde edozein unetan amaitutzat jo ahal izango du Elkar Ulertzeko Memorandum hau, beste aldeari zuzendutako idatzizko jakinarazpen bidez; jakinarazpena 90 (laurogeita hamar) egun lehenago egin beharko da.

Elkar Ulertzeko Memorandum honen amaiera aurreratuak ez du eraginik izango haren indarraldian formalizatutako lankidetzajardueren bukaeran.

Dokumentu honek ez ditu Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan ondorio juridiko lotesleak izango.

Santiago de Querétaro hirian sinatua, 2014ko urriaren 27an, gaztelaniazko eta euskarazko ale bitan, bi testuak bata bestea bezain benetakoak izanik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, Iñigo Urkullu Rentería. Lehendakaria,

Querétaroko Estatuaren aldetik, Lic. José Eduardo Calzada Roviroso. Gobernador Constitucional.

2014ko abenduaren 18a, osteguna

II. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, «BELDUR BARIK» EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PREBENITZEKO ERAKUNDE KANPAINA GARATU ETA BATERA FINANTZATZEKOA.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 3a.

BILDU DIRA:

Izaskun Landaida Larizgoitia anderea, Emakundeko zuzendaria.

Martin Garitano Larrañaga jauna, Gipuzkoako ahaldun nagusia.

ESKU HARTU DUTE:

Izaskun Landaida Larizgoitia andreak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 17.2.f) artikuluari jarraikiz.

Martin Garitano Larrañagak, foru administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko erakunde, gobernu eta administrazio antolakuntzari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko 26.5b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

HONAKO HAU AZALDU DUTE:

Lehenengoa.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluekin bat etorritik, Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen alor guztietan.

Aipatu Legeko 3. artikuluko a), h) eta n) idatz-zatietan ezartzen denez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioak izango dira aipatu xedeak lortzeko jarraibideak egitea eta horiek euskal botere publikoek aplikatu ditzaten bultzatzea; eta aipatu botere publikoek garatzen dituzten jardun-programetatik emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen berdintasunean eragina izan dezaketenak koordinatzeko neurriak bultzatzea. Halaber, hari dagokio herritarrak sensibilizatzea, kasuan kasu egokituz jotzen diren sensibilizazio-, sustapen- eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak eginez, herritarrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanahiaz eta garrantziaz jabetu daitezen, bai eta hori lortzeko eta emakumeak ahalduntzeko lan egiteko premiaz ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean antzera arautu da gaia. Hala, bertako 5.e) artikuluari jarraikiz, hari dagokio euskal administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten dituzten jarduketan arteko lankidetzaren bultzatzea, eta, artikuluko bereko i) idatz-zatiaren arabera, baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei buruz sensibilizatzeko eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko jarduerak ere, Euskal Autonomia Erkidego osorako eta Euskal Herria osorako era bateratuan egin behar direnean.

Horren haritik, Erakundearen helburuetako bat da administrazioen esku-hartzea indartzea eta bultzatzea alor hauetan: emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko esku hartzea eta sexuen arteko desberdintasunaren erakusgarriak larrienetakoan, esan nahi baita emakumeen aurkako indarkerian esku hartzea, hain zuzen ere.

Bestalde, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu ziren eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren. Dekretu horren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzentzea eta koordinatzea.

Bigarrena.– Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera (berdintasunari dagokionez foru administrazioek dauzkaten eskumenak ezarri dira bertan), Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio «sustapen neurriak ezartzea udalei eta gainerako toki erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako programak eta jarduerak garatzeko baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak hornitzeko». (6 h artikulua).

Halaber, aipatu Legeko 6.f) artikulua arabera, bere lurralde esparruan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuneko egoerei eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriak buruzko sentsibilizazio jarduerak egitea dagokio.

Hirugarrena.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak 2009az dihardute elkarlanean gazteei zuzendutako genero-indarkeria prebenitzeko erakundeen arteko kanpaina bat garatzen, Beldur Barik leloaren pean.

Laugarrena.– 2014. urteko ekitaldiaz geroztik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudelek eskatuta, bere gain hartuko du Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina kudeatzeko ardura. Kanpainan parte hartzen duten alderdi guztiak ados daude eta alde biko hitzarmenak sinatuz kudeatzea proposatu da.

Bosgarrena.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundia ados daude 2014an Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina garatzen laguntzeko eta, beraz, hitzarmen hau sinatzea adostu dute. Hitzarmena honako klausulak izango ditu:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Hitzarmen honen xedea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren egituratzea da, gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik erakundeen arteko kanpaina garatzeko.

Bigarrena.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoak.

1.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du gaiari buruz daukan ezagutza eta eskarmentua jartzeko, baita honako konpromisoak ere:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lan plangintza bat aurkeztu eta adostea.
- b) Ekintzen gauzapena garatzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

c) Aurreko idatz-zatian aipatutako konpromisoak betetzeko behar diren adina baliabide material eta giza baliabide jartzea.

d) Kontratazio-organo eginkizunak egikaritzea.

e) Hitzarmen honetan aipatzen diren ekarpenak kudeatzea.

f) Urteko txostena egitea, aurreko idatz-zatian aipatutako konpromisoen arabera egindako lanari buruz. Halaber, hitzarmen honen xedea dela-eta eskatzen dioten adina informazio eta dokumentazio osagarri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

2.– Era berean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundearen arteko kanpainaren kostuaren zati bat finantzatzeko betebeharra, 2014an gehienez 60.000 (hirurogei mila) euro jarriz. Zenbateko horrek, hiru foru aldundiek jartzea aurreikusita dagoen zatiarekin batera, mugatzen du «Beldur Barik programa diseinatu eta betearazteko» 04EMK/04S/2014 kontratazio espedientearen -2014ko martxoaren 11ko EHAA argitaratua- lizitazioaren gehienezko aurrekontua.

3.– Azkenik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du ekimen hori bere web orriaren eta erakundearen beste hedabideen bidez zabaltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sustatu duela agertuz. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

Hirugarrena.– Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoak.

1.– Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Beldur Barik erakundearen arteko kanpainaren kostuaren zati bat finantzatzeko, 2014. urtean gehienez ere 18.705 (hamazortzi mila zazpiehun eta bost) euro jarriz, Beldur Barik erakundearen arteko kanpainako laguntza teknikoa garatzeko.

2.– Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du ekimena bere web orriaren eta erakundearen bestelako hedabideen bidez zabaltzeko. Horretarako, bi entitateen logotipoak agertuko dira.

3.– Gipuzkoako Foru Aldundiak ibilbide-orri bat ezarri eta han programaren esparruan garatzen dituen jarduketak jasoko ditu.

Laugarrena.– Ordaintzeko modua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena hitzarmena sinatutakoan egingo den ordainketa bakar baten bidez ordainduko da.

Bosgarrena.– Egiaztapena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiaztatuko du 2015eko otsailaren 28a baino lehen hitzartutako jarduerak egin direla, egindako jarduerak egiaztatzeko kontu bat aurkeztuz. Kontu horrek honakoak jasoko ditu:

– Bigarren klausulan adierazitakoari jarraituz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak hartuko konpromisoak bete direla egiaztatzen duen jarduera-memoria.

– Diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

– Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak (jatorrizkoak edo konpultsatuak) eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.

Seigarrena.– Koordinazioa eta jarraipena.

1.– Jarraipen Batzordeak koordinazio- eta jarraipen-lanak egingo ditu, hitzarmen honetan xedatua behar bezala egiten dela ziurtatzeko. Jarraipen Batzorde hori xede horrekin sortuko da, hain zuzen ere, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak koordinatuko du. Zentzu horretan, beste eginkizun batzuen artean, burututako ekintzen gastuak behar bezala justifikatu direla egiaztatuko du.

2.– Jarraipen Batzorde horretan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak parte hartuko dute. Bestalde, batzordera, aholkulari gisa, Berdinsareko -Berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren aurkako euskal udal sarea- adituak eta ordezkari teknikoak gonbidatu ahalko dira, baita beste aditu batzuk ere.

3.– Emakundek programatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko bilerak deituko ditu.

Zazpigarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen den unean hasiko da, eta 2014ko abenduaren 31n amaituko, nahiz eta hitzarmenaren kontura 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako jarduerak finantzatu daitezkeen.

Hala ere, urtero beste urtebeterako luzatuko da isil bidez, baldin eta aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia badago, eta alderdiren batek, hitzarmena muga eguneratu baino hiru hilabete lehenago gutxienez, berariaz amaiera iragartzen badu.

Zortzigarrena.– Beste laguntza eta diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Hitzarmen honen diru-laguntza bateragarria izango da xede bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek eman dituen administrazioa edo erakundea (publikoa edo pribatua), izan Estatukoa, Europar Batasunekoa, edo nazioartekoa. Ezingo da inolaz ere gainfinantzaketarik gertatu.

Bederatzigarrena.– Hitzarmeneko baldintzak aldatzea eta beste laguntza batzuk jasotzea.

Lankidetzeta hitzarmena sinatzeko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok eta, edonola ere, Estatuko edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatu baten edo beste administrazio batzuen diru-laguntza edo laguntzaren bat ere jasotzen bada, hitzarmena aldaraz dezake.

Hamargarrena.– Hitzarmena suntsitzea.

a) Hitzarmen hau indargabetuko da egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

b) Sinatu duten alderdi biak ados daudenean; hilabete aurretik jakinarazi beharko da.

Aldeetako edozeinek bere konpromisoak ez betetzea.

Hamaikagarrena.– Itzulketa.

Hitzarmen hau betetzen ez bada edo emandako kopurua beste xede batzuetarako erabiltzen bada, diru-laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko da eta hura osorik edo zati batean itzuli beharko da, hari dagozkion berandutza interesekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 35. artikuluan

eta apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako haren garapeneko araudiko 63. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Hamabigarrena.– Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen hau administrazioaren arlokoa da. Beraz, azken instantzian, administrazioarekiko auzietako epaitegi eskudunek aztertuko eta ebatziko dituzte hitzarmen hau dela-eta sortzen diren auziak.

Hamahirugarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Legeari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak konplitzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderen aldetik, Izaskun Landaida Larizgoitia. Emakundeko zuzendaria.

Gipuzkoako Foru Aldunditik, Martin Garitano Larrañaga. Gipuzkoako Diputatu Nagusia.

III. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

ONINARRIZKO LANKIDETZA HITZARMENA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL
HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA KONTSUMOBIDE-REN ARTEKOA

Leioan, 2104.eko urriaren 9an.

BILDURIK:

Alde batetik, Maite Zelaia Garagarza andrea, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea, unibertsitate honen izenean eta ordezkartzan, aurrerantzean UPV/EHU, IFK Q-4800018-B duena, errektoreak UPV/EHUren gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko 2013ko urtarrilaren 30ekoa emandako erabakiak xedatzen duenarekin bat (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

Beste aldetik, Elena Unzueta Torre andrea, Kontsumobideko zuzendaria (kontsumoaren euskal institutua), aurrerantzean Kontsumobide, IFK Q0100569C eta gizarte egoitza Santiago etorbideko 11.ean duena, Vitoria-Gasteiz 01002, Euskal Autonomi Erkidegoaren administrazioaren izenean eta ordezkari, Kontsumobide kontsumoaren euskal institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 legearen 9. eta 14. artikuluetan eta Kontsumobide kontsumoaren euskal institutua egituratzeko eta antolatzeko uztailaren 12ko 159/2011 dekretuaren 3.4 artikuluan esleitzen zaizkion ahalmenak baliatuta.

Bi aldeek hitzarmen hau betetzeko behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, irakaskuntza, ikerkuntza, ikasketa, kultur eta unibertsitate hedakuntzaren bidez; kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko ezinbesteko konpromisoaz bermatuta. Balioak transmititu eta jakintza sortu berresteko erakundea izanik, berebiziko erantzukizuna du unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzean, batez ere gizarte eta kultura mailen arteko aldeak gutxitzera zuzenduta, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzera zuzenduta ere.

Bigarrena.– UPV/EHUK, bere xedeen artean, besteak beste, gestio arduratsu, jasangarri eta efizientearen garrantziaren jakitun izanen diren profesionalak, irakaskuntzaren maila gorenean, hezte eta prestatzea du, jakintza konpromiso etiko argiaz eta gizarte erantzukizun gardenaz eraikiko dutenak, hiritarren belaunaldi berrien prestakuntzan eta iritzi sorreran duen eginkizun funtsezkoari atxikita.

Hirugarrena.– Kontsumobide erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren osasun sailari atxikita, helburuak euskal gobernuak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsan eta babesean izan beharreko politikak definitu, planifikatu, bultzatu eta burutzea dituen. Uztailaren 12ko 159/2011 dekretuak arautzen du bere egitura eta antolaketa.

Laugarrena.— Alde biek interesa dute lankidetza esparru bat ezartzeko, erakunde bien helburuak betetzen lagunduko duten jarduerak eta lanak egiteko.

Esandako guztiagatik, alde biek honako hau

ADOSTU DUTE:

Lankidetza hitzarmen hau sinatzea, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Helburua.

Hitzarmen honen helburua da lankidetza marko bat ezartzea UPV/EHUK eta Kontsumobidek elkarrekin hainbat ekimen aurrera ateratzeko gizarte erantzukizunaren, jasagarritasunaren, jakintzaren transferentziaren eta balioekiko sentsibilizazioa eta heziketaren arloan.

Bigarrena.— Jarduteko eremua.

Bi aldeen arteko lankidetza mugatuko da hitzarmenaren lehenengo klausulan deskribatutako ekimenak garatzera. Hain zuzen ere, honako hauek:

- 1.— Kontsumo programa bateratuak sustatu eta burutzea.
- 2.— Unibertsitate curriculumean ardurazko kontsumoaren gaia gehitzea sustatuko luketen ekintzak egitea.
- 3.— UPV/EHUko ikasleen praktikak Kontsumobide-n egitea, hala erabakiko balitz, hezkuntza lankidetzarako sinatu beharreko akordioa sinatu ostean.
- 4.— Ardurazko kontsumoaren gaineko gaietan unibertsitateko kideei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak antolatzea.
- 5.— Interes amankomuneko gaien inguruko jardunaldi, mintegi eta kongresuak batera antolatzea.
- 6.— Elkarri aholku ematea ikasketak planifikatu, antolatu eta gauzatzeko, bien intereseko gaien inguruan.
- 7.— Elkarri aholku ematea Euskal Autonomi Erkidegoan kontsumo zuzenbidea arauz gara dadin.
- 8.— Kontsumobideko, kontsumitzaileak informatzeko udal bulegoetako eta bestelako erakundeetako pertsonala prestatzea, Euskal Autonomi Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen defentsa helburu dutelakoan.
- 9.— Euskarri zientifiko eta akademikoa, Kontsumobideri interesgarri zaizkion gaurkotasun gaien inguruan txostenak eginda.
- 10.— Bi aldeek ados jarrita hitzarmen honetako helburuak lortzeko antolatzen dituzten bestelako jarduerak.

Hirugarrena.— Lankidetzaren garapena.

Hitzarmen honen babesean egiten den jarduera eta proiektu bakoitzak aparteko tramitazioa izango du, kasu bakoitzari dagozkion arauetara jarraiki. Tramitazioan jaso beharko dira lankidetzaren

nondik norakoen xehetasunak, eta aldeen konpromisoak, hala ekonomikoak (horrelakorik egonez gero) nola bestelakoak.

Hitzarmen hau garatzeko egiten diren hitzarmen, akordio, kontratu eta bestelako dokumentuetan, bakoitzari dagozkion xehetasunez gainera, honako hauek ere jaso beharko dira:

a) Elkarlanean egindako ikerketen emaitzen jabea nor izango den, emaitzok nola ustiatuko diren, eta zelan arautuko den parte hartzaileen konfidentzialtasuna.

b) Aldeek elkarren azpiegitura erabiliko duten ala ez ikerketarako, eta, baiezkoan, zein baldintzatan.

Laugarrena.– Datu pertsonalen babestea.

Informazioa zabaltzerakoan Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa bete beharko da, bai eta hirugarrenei dagokien konfidentzialtasun eskubidea errespetatu ere.

Bosgarrena.– Jarraipen taldea.

Hitzarmenaren garapen egokia egiaztatzearen, aldeak ados jarrita, jarraipen talde bat eratuko da, bi pertsonak osatua, erakunde bakoitzeko bana; UPV/EHUren ordezkaria Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea edo berori ordezkaria izango delarik. Kontsumobide-ren ordezkaria zuzendaria edo berori ordezkaria izango da.

Talde hori arduratuko da hitzarmen hau interpretatzeaz, hitzarmenaren babesean egindako jarduerak programatu, jarraitu eta baloratzeaz, bai eta hitzarmena garatzean sor daitezkeen alderdi guztiez erabakitzeaz ere. Hauek izango dira, zehatz-mehatz, taldearen eginkizunak:

a) Hitzarmen honetan jasotako ekintzak bete daitezen bultzatu.

b) Aldeek hala eskatuta, hitzarmena garatzeko ekintzak definitu eta egoki jotzen dituen behar adina batzorde tekniko sortu.

c) Hitzarmen hau interpretatu eta gauzatzean sor daitezkeen zalantzak eta kontuak argitu eta erabaki.

d) Hartutako konpromisoen jarraipena eta azken ebaluazioa egin.

e) Hitzarmena garatzeko egindako jarduerak dokumentatu.

Bi aldeetako edozeinek eskatu ahal du biltzeko, hitzarmenaren betearazpena eta jarraipena bultzatzeko, gorabeherak eta arazoak konpontzeko, eta jarduerak programatu edo horien balorazioa egiteko. Bi pertsona hauek bilera egiten dutenean akta egingo dute, eta bertan jasoko dituzte bileran hartutako erabakiak.

Oinarrizko lankidetzaren hitzarmen honen babesean egiten diren hitzarmen espezifikoei, hitzarmen bakoitzeko jarduerari egingo zaien jarraipena deskribatuko da.

Seigarrena.– Lankidetzari zabalkundea ematea.

Bi erakundeek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honek helburu duen lankidetzaren nabarmen-tzeko, bai eta hitzarmen honen babesean sinatzen diren akordio zehatzena ere.

Horrela, bada, lankidetzako oinarrizko hitzarmen honen ondorioz sortutako ezagutzarekin egindako argitalpen guztietan edo jakintza hori zabaldu eta ustiatzeko egindako jardueraren guztietan

berariaz jasota ageri beharko da bi alderdien arteko lankidetzeta eta bermatu egin beharko da bien irudia, egoki diren beste batzuekin batera, nabarmenduta ageriko dela, antzeko tamaina edo ezau-garriekin.

Zazpigarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia hiru (3) urtetakoa izango da eta epe hori amaitzean berriz ere luzatu ahal izango da automatikoki urtero, eta gauza bera egin ahal izango da epea amaitzen den bakoitzean, alde bietako batek hitzarmena bertan behera utzi nahi duela adierazten ez badu. Edonola ere, asmo horren fede eman beharko dio beste aldeari epea (lehenengoa edo luzapena) amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Zortzigarrena.– Aldaketa.

Alderdi batek eskatuz gero, hitzarmen hau aldatu ahal izango da, biak ados badaude. Hitzarmenean egindako aldaketek eragina izan dezaten, idatziz jaso beharko dira eta behin bi aldeek sinatutakoan, hitzarmenari erantsiko zaizkio.

Bederatzigarrena.– Hitzarmena azkentzea eta horren ondorioak.

Oinarrizko hitzarmen hau bertan behera utziz gero, honen babesean sinatutako akordio eta kontratuak indarrean jarraituko dute haien epea amaitu arte.

Bi aldeek irakurri dute hitzarmen hau eta ados daude bertan adierazitakoarekin. Beraz, hitzarmenaren bina ale sinatu dute ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen aldetik, Maite Zelaia Garagarza andrea.

Kontsumobide-ren aldetik, Elena Unzueta Torre Andrea.

IV. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

BARNE MINISTERIOAREN (DROGEI BURUZKO PLAN NAZIONALERAKO GOBERNU ORDEZKARITZA) ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARTEAN 1999KO EKAINAREN 2AN IZENPETUTAKO LANKIDETZA PROTOKOLO OROKORRAREN 2014. URTERAKO BERARIAZKO HITZARMENA.

Madriilen, 2014ko urriaren 30ean.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Francisco de Asís Babín Vich Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernu ordezkaria –2012ko urtarrilaren 23ko 249/2012 Errege Dekretuaren bidez izendatu zen (BOEren 20. zk., 2012ko urtarrilaren 24koa)–, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioaren izenean, eskumenak eskuordetzeari buruzko urtarrilaren 17ko SSI/131/2013 Aginduaren 6. paragrafoko 1.b) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Jon Darpón Sierra Osasuneko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz –ekimen honetarako ahalmena ematen dio Gobernu Kontseiluak 2014ko urriaren 21ean hartutako Erabakiak–.

AZALTZEN DUTE:

Barne Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak lankidetzarako protokolo orokor bat sinatu zutela 1999ko ekainaren 2an, drogamendekotasunen alorrekoa, eta protokolo horren arabera, urteko berariazko hitzarmen batean ezarriko direla Esleipenak Koordinatzeko Mahaiaren eta Autonomia Erkidego horretako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren arteko lankidetzak gauzatzeko programak. Horregatik,

ERABAKITZEN DUTE:

Lehena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailak programa hauek garatuko dituela 2014an:

- Toxikomanietan esku-hartzeko programa, Araba-Alava espetxean: 189.000 euro.
- «Hontza» larrialdiko eta gaueko harrerako zentroa: 134.000 euro.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan alkohol kontsumoaren prebentzio selektiboko programa garatzea: 35.000 euro.

Bigarrena.– Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak (Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernu Ordezkaritzak) finantzatzeko programa horiek, Esleipenak Koordinatzeko Mahaiak 2014ko maiatzaren 8an emandako ebazpenaren arabera. Guztira, 358.000 euro emango ditu, 26.18.231A.458 kontzeptuaren kontura eman ere, horretarako hornitu baita drogen trafikoagatik eta gisako delituengatik konfiskatu diren ondasunen funtsetik etorritako kredituez, maiatzaren 29ko 17/2003 Legearen 3.1.b) artikulua aplikatuta –drogen trafikoagatik eta gisako delituengatik konfiskatu diren ondasunen funtsak arautzen duen legea da hori–. Funtsak hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko dira.

Hirugarrena.— Datorren ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailak amaierako txostena eta programen garapena ebaluatzeko txostena bidaliko dizkio Esleipenak Koordinatzeko Mahaia, bai eta horiek gauzatzeko egindako gastuaren ziurtagiri zehatza eta xehatua ere.

Laugarrena.— Erabakiaren lehenengo puntuan aipatutako programak Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sailak garatuko ditu 2014. ekitaldian.

Bosgarrena.— Hitzarmen hau garatzeari eta aplikatzeari dagokienez, bi aldeek izenpetutako lankidetzaren protokolo orokorrean ezarritakoari egingo zaio kasu, eta egindako gastua diruz lagundutako kopurua baino gutxiago bada, soberakina Altxor Publikoari itzuliko zaio. Horretaz gain, berriazko hitzarmenean espresuki aurreikusi ez den guztian protokolo orokorreko xedapenak arautuko dute.

Seigarrena.— Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategineko 4.1.c. artikulua babesean izenpetzen da. Testu bategin hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi zen, eta kontratuen arautegi-eremutik kanpo geratzen da. Dena den, Lege horren printzipioak aplikatuko zaizkio sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Sor daitezkeen eztabaidak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Erabakitakoa behar bezala jasota gera dadin, bina aletan sinatzen da hitzarmen hau, goian aipatutako tokian eta egunean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Saileko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

Drogei buruzko plan nazionalerako gobernu ordezkaria,
FRANCISCO DE ASÍS BABÍN VICH.

V. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, CARLOS III.A OSASUN-INSTITUTUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN ARTEKOA, TEKNOLOGIEN GARAPENERAKO JARDUERAK EGITEKO OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN OSASUN-TEKNOLOGIAK ETA PRESTAZIOAK EBALUATZEKO AGENTZIEN ESPAINIAKO SAREAREN ESPARRUAN

Madriren, 2014ko urriaren 23an.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Antonio Luis Andreu Pérez jauna, Carlos III.a Osasun Institutuko (hemendik aurrera, ISCIII) zuzendaria, martxoaren 1eko 165/2013 Errege Dekretuaren bidez izendatua (BOE, 53. zk., martxoak 2), eta ISCIII institutuaren izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duena, apirilaren 6ko 375/2001 Errege Dekretuak, ISCIII institutuaren Estatutua onartzen duenak (eta, gerora, maiatzaren 20ko 590/2005, otsailaren 27ko 246/2009, azaroaren 6ko 1672/2009, eta urtarrilaren 23ko 200/2012 errege-dekretuek aldatuak) 11. artikuluan ematen dizkion eskumenak erabiliz. ISCIII institutuak Q-2827015-E IFK kodea du eta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren bidez, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikitako ikerketa-erakunde publikoa da, helbidea Madriren duena, Sinesio Delgado kaleko 6. zenbakian.

Eta bestetik, Guillermo Viñegra García jauna, Eusko Jaurlaritzako osasun-sailburuordea [abenduaren 24ko 392/2012 Dekretuaren bidez izan zen izendatua], apirilaren 9ko 195/2013 Dekretuak, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 7.1.b) artikuluen bidez ematen dizkion eskumenak erabiliz jarduten duena, Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatzuz Eusko Jaurlaritzaren bidez [S4833001C IFK, eta helbidea Vitoria-Gasteizko Donostia-San Sebastián kaleko 1. zk., 01010], hitzarmen hau izenpetzeko berariaz baimendua izan ondoren.

Aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau izenpetzeko lege gaitasuna, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehena.– Osasun Sistema Nazionaleko (SNS) Lurraldearteko Kontseiluaren osoko bilkurak, 2012ko otsailaren 29an egin bilkuran, osasun-teknologiak ebaluatzeke agentzien sare bat sortzea erabaki zuen, mediku-teknikak eta -prozedurak ebaluatu lehenik, eta, ondoren, haiek Osasun Zerbitzu Nazionaleko zerbitzuen zorro komunaren erabilera-baldintzen artean sartu, atera edo aldatzeko.

Bigarrena.– Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Teknologiak eta Prestazioak Ebaluatzeke Agentzien Espainiako Sarea sortuta, orain artekoa baino modu efiziente eta iraunkorragoan egokitu eta koordinatu daitezke egitura nazionalak eta autonomikoak. Horrela jokatuta, ez da bikoiztasunik sortzen, eta sinesgarritasuna eta indarra ematen saio sare-laneko ereduari.

Horren guztiaren bidez, lankidetzaren instituzional bat ezarri nahi da, partekatutako helburuei erantzuna eman eta Osasun Sistema Nazionaleko ekitatea eta efizientzia handiagoa bermatzeko. Jarduera horren abiapuntua informazio zientifiko zuzena eta kalitatezkoa izango da, orain arte baino errazagoa izan dadin prestazio berriak kostu-eraginkortasun irizpideetan oinarrituta ezartzea, prestazioak baztertzea eta zerbitzuen erabilera-baldintzak aldatzea. Jardun-modu hori lagungarria izango da osasun-teknologiak behar bezala erabiltzeko eta haiek abian jarri ondorengo jarraipena egiteko; horrez gainera, klinika-jardunaren giden eta ebaluazio-txostenen bidez, jardun horren

zesuan, aintzat hartuta, beti, zer arautzen duten maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 20. eta 21. artikuluek, gerora aldatuak izan direnak apirilaren 20ko 16/2012 errege lege-dekretuko 2.6. eta 2.7. artikuluen bidez. Jarduera nagusi hauen bidez gauzatuko da hura:

1.– Osasun-teknologiak ebaluatzeko txostenak egitea.

2.– Klinika-jarduneko gidak egitea, Osasun Zerbitzu Nazionalako klinika-jardueran justifikaziorik gabeko aldakortasuna dokumentatu eta hura murrizteko ekimenak proposatuko dituztenak.

Bigarrena.– Araubide juridikoa.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 4.1.c) artikuluan arautzen duena aintzat hartuta, lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da hitzarmen hau, eta berariaz egingo da berau maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 20. eta 21. artikuluen —gerora apirilaren 20ko 16/2012 errege lege-dekretuaren 2.6. eta 2.7. artikuluen bidez aldatuak izan dira— eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6.1. artikuluen araupean.

Hirugarrena.– Aldeen betebeharrak.

Aldeek beren gain hartzen dute hitzarmen honetan ezartzen diren betebeharrak betetzeko konpromisoa, eta, berariaz, hauek egiteko konpromisoa:

1.– Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren betebeharrak, Osasun Teknologien Ebaluazioko Zerbitzu-Osteba zerbitzuaren bidez:

a) Agiri honen 1. eranskinean adierazten diren jarduerak egingo ditu.

b) Haren kontura egingo dira hitzarmen honen ondorioz egin beharreko azken txostenen edizioa, maketazioa eta hedapena, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen dituen irizpideen arabera, eta amaierako txostenak Osasun Teknologiak eta Osasun Sistema Nazionalako Prestazioak Ebaluatzeko Agentzien Espainiako Sarearen web-plataforman jarriko dira.

c) Sareko idazkaritza teknikoak onetsitako protokoloaren eta kronogramaren arabera egingo dira jarduera horiek.

2.– ISCIII institutuaren betebeharrak:

a) Osteba zerbitzuaren esku jarriko ditu, 1. eranskinean adierazten diren jardueren xedearekin lotuta, parte hartzen duen ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektu guztien emaitzak, Osteba zerbitzuak haiek garatzeko aukera izan dezan.

b) Bere bibliografia-funtsak erabiltzeko aukera emango dio Osteba zerbitzuari, 1. eranskineko jarduerak lantzeko.

c) Osasun Teknologiak eta Osasun Sistema Nazionalako Prestazioak Ebaluatzeko Agentzien Espainiako Sarearen web-plataforman jarriko ditu Osteba zerbitzuaren lanak.

d) Hitzarmena izenpetzen duten aldeen ondare-orekari eusteko, ISCIII institutuak bostehun eta berrogeita hamabost mila (555.000) euro transferituko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiri, ES66 0182 5685 070000226271 kontu korrontera. Diru horren zenbatespena egiteko, gastu, zerga eta karga guztiak hartu dira kontuan. Zenbateko hori 2014. aurrekontu-ekitaldiko 27.205.465A.751 aurrekontu-aplikazioaren kontura ordainduko da, esleitutako lan-kargaren nolakotasunari eta ezarritako lan-programari baldintzatuta.

Laugarrena.– Jarraipen Batzordea.

1.– Jarraipen Batzorde bat eratuko da hitzarmen hau interpretatu eta haren jarraipena egiteko. Osaera hau izango du:

- ISCIII institutuko zuzendaria edo hark eskuodetutako pertsona, Batzordeko burua izango dena.

- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendaria edo hark eskuodetutako pertsona.

- Osasun Teknologiak eta Osasun Sistema Nazionaleko Prestazioak Ebaluatzeko Agentzien Espainiako Sareko hiru ordezkari.

- Osteba zerbitzuko ordezkari bat, haren presidentek izendatua.

- Autonomia-erkidegoko Osasun Saileko bi ordezkari.

- Idazkari bat, ISCIII institutuak izendatutako funtzionarioa, hitz egiteko eskubidea bai, baina botoa emateko eskubiderik izango ez duena.

2.– Batzordearen bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke. Batzordea urtean bi aldiz bilduko da gutxienez ohiko bilkuran, haren buruak alde aurretik deialdia eginda, hamabost eguneko gutxienerako aurrerapenez. Egoki iritzitako alditan bilduko da ezohiko bileretan, aldeetakoren batek hala eskatuta.

Batzordeak adostasunez hartuko ditu erabakiak. Adostasun batera iristeko arrazoizkoak diren saioak egin ondoren, adostasunik iristen ez bada, gehiengoz hartuko dira erabakiak. Kalitate-botoa izango du buruak. Jarraipen Batzordearen bileretako aktak egingo ditu idazkariak.

3.– Hitzarmen honen araupean egin beharreko jarduerak egiten direla egiaztatuko du Jarraipen Batzordeak, eta Osteba zerbitzuak entregatu behar duen laburpen exekutiboa onartuko du.

4.– Horiez gainera, berariazko eginkizun hauek izango ditu jarraipen-batzordeak:

a) jardueren aurrerapenari buruzko txostenak eskuratu eta ikuskatzea;

b) jarduerak egiteko baldintzak ezagutzea eta, hitzarmena betetzeko garaian egoera nabarmengarriren bat gertatzen baldin bada, jarduerak betetzeko epearen aldaketa baimentzea, bi aldeetakoren batek hala eskatu ondoren;

c) hitzarmenaren emaitzak berrikustea eta, egoerak horretara behartzen baldin badu, 1. eranskinean adierazten diren jardueren xede diren ebaluazio-txostenak alda daitezen eskatzea, Osasun Teknologiak eta Osasun Sistema Nazionaleko Prestazioak Ebaluatzeko Agentzien Espainiako Sarearen helburuetara egoki daitezen;

5.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluak araututakora egokituko du Jarraipen Batzordeak bere funtzionamendua.

Bosgarrena.– Hitzarmena betetzeko modua.

1.– Hitzarmen hau izenpetzen denean, Sareko idazkari teknikoak protokoloak balioesten ditueanean, hirugarren klausulako 1.c. xedapenak adierazitako moduan, hitzarmenaren zenbatekoaren % 10 transferituko da

2.– Jarraipen Batzordearen bileren ostean, txostenak egin eta onartu eta egindako gastuak justifikatu ondoren, egindako lanei dagozkien kredituak abiaraziko dira, egindako lanari dagokion ziurtagiria egiten duenean Jarraipen Batzordeko idazkariak.

3.– Jarraipen Batzordearen azken bileran, justifikazio-kontu bat aurkeztuko da. Kontu horrek, jardueren memoriaz gain, memoria ekonomiko bat izango du, zehaztasunez adieraziko dituen txosten bakoitzean egin diren gastuak.

4.– Ez-betetzerik gertatzen baldin bada, egin diren eta Jarraipen Batzordeak onartu dituen txostenen arabera egingo dira likidazioak, modu proportzionalen. Aldez aurretik azkentzeko arrazoi izan daitezke ez-betetzeak.

5.– Ezingo da bestelako finantzazio-iturririk baliatu hitzarmen honen araupean egiten diren jarduerak egiteko, izan haiek europarrak, estatukoak edo autonomikoak.

6.– Alde biek hartzen dute beren gain hitzarmena betetzeko modu normalari eragin diezaiokeen edozein gertakari beste aldeari jakinarazteko konpromisoa.

7.– Azkenik, hitzarmen honen alde bakoitzak bere gain hartzen du egin beharrekoak izango dituen jarduerak zuzen eta efikaziaz betetzeko behar diren bitartekoak jartzeko konpromisoa.

Seigarrena.– Hitzarmena suntsitu eta azkentzeko kausak.

1.– Hitzarmena suntsiarazteko kausa edo arrazoi izango da alderen batek ez betetzea hitzarmen honen bidez bere gain hartzen dituen betebeharrak.

Hitzarmenaren ez-betetze bat hautematen baldin bada, ez-betetzea egin duten aldeari jakinaraziko zaio, hartu izanaren agiria daraman gutun ziurtatu bat bidalita, kopia batekin, Jarraipen Batzordeko buruari. Gutun hori jaso ondorengo hamabost egunetan, zuzendu egin beharko da egoera, edo, halakorik gertatzen ez baldin bada, hitzarmena behar bezala betetzeko ezintasuna dakarkion arrazoiak eta kausak adieraziko ditu hura urratu duen aldeak. Bi aldeentzat egokia den adostasun bat iristen ez baldin bada, suntsituzat hartuko da hitzarmena, ISCIII institutuko zuzendariak emandako ebazpen bidez.

2.– Hitzarmena azkentzeko kausak izango dira indarraldia amaitzea eta aldeek azkentzea adostea.

3.– Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak erabakiko ditu hitzarmen hau interpretatzean, aldatzean, suntsitzean eta haren ondorioak zehaztean sor daitezkeen auziak.

Zazpigarrena.– Indarrean jartzea. Iraupena.

Aldeek izenpetzean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta 2014ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean.

Eta adostasun-adierazpen moduan, hitzarmen hau izenpetzen da, ondoren bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Carlos III.a Osasun Institutuko zuzendaria,
ANTONIO L. ANDREU PÉRIZ.

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua,
GUILLERMO VIÑEGRÁ GARCÍA.

ERANSKINA. 2014KO JARDUERA-PLANA.

Lankidetz-esparruak 2014an:

1.– Osasun-teknologiaren ebaluazioa eta klinika-jarduneko gidak

○ CPAP BIPAP tratamenduaren eraginkortasuna loaren apnea tratatzeko eta BIPAP tratamendua AEA duten pazienteak tratatzeko.

○ Lineako hemodialisiaren eraginkortasuna eta haren erabilpen egokia egiteko jarraibideak.

○ Ultzera baskularrak tratatzeko Vacuum teknikaren kostua aztertzea.

○ Erradiologia-teknologiaren eraginkortasuna, segurtasuna eta indikazioak birika-minbizia hautemateko.

○ Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunen oinarritzko zorroaren ebaluazioak egitea, zuzendaritzaordetza orokorrak proposatuta.

2.– Ebaluazio-erregistroa.

3.– Metodologia-garapenak.

○ Kalitatez Doitutako Bizitza Urte baten diruzko balioaren zenbatespena.

4.– Beste jarduerak batzuk.

○ Osasun Sistema Nazionalak osasun-teknologiaren ebaluazioaren alorrean egiten dituen proiektuetan parte hartzea, nazioarte-mailan.

VI. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

BERARIAZKO LANKIDETZA HITZARMENA, EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN
MINISTERIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN ARTEAN,
OSASUNeko IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN EBALUAZIO
ZIENTIFIKO TEKNIKO EGITEKO (EBALUAZIORAKO ETA PROSPEKTIBARAKO ESPAINIAKO
AGENTZIAK EGINGO DU AIPATUTAKO EBALUAZIOA)

Madriren, 2014ko irailaren 25ean.

Batetik, Marina Pilar Villegas Gracia andrea, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren ize-
nean eta ordezkartzan, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko zuzendari nagusi gisa (otsailaren 7ko
87/2014 Errege Dekretuaren bidez izendatuta), Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu idaz-
kariak emandako aginpideaz baliatuta, eta eskumenak eskuordetzen dituen 2012ko azaroaren
19ko Ebazpenaren bosgarren paragrafoa, 1 betez.

Bestetik, Guillermo Viñegra García, Osasuneko sailburuordea, apirilaren 16ko 313/2013 Dekre-
tuaren bidez hala izendatuta (EHAAren 75 zenbakia, apirilaren 19koa), apirilaren 9ko 195/2013
Dekretuaren, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoaren, 7.1.b) artikulua
emandako eskumenaz baliatuta.

Bi aldeek hitzartzeko eta elkar behartzeko ahalmena onartu diote elkarri, eta

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari (Mineco hemendik aurrera) dago-
kio gobernuaren politika proposatzea eta betearaztea sektore guztietako ikerketa zientifikoaren,
garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren arloan, ministerio-sailak berregituratzen dituen aben-
duaren 21eko 1823/2011 Errege Dekretuaren arabera.

Ebaluaziorako eta Prospektibarako Espainiako Agentzia (ANEP) zuzendariordetza nagusia-
ren mailako unitate bat da, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren mendeko
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Idazkaritza Nagusiaren Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko
Zuzendaritza Nagusira atxikita, eta I+G+Bko Plan Nazionalaren zein Estatuko Zientzia eta Teknika
Ikerketarako Planaren ekintzen aurreko eta osteko ebaluazio zientifiko-teknikoa egiteko ardura
du, bai eta politika zientifiko eta teknologikoko bestelako jardura batzuen gainekoa ere, objekti-
botasunez eta independentziaz betiere. Hori guztia otsailaren 10eko 345/2012 Errege Dekretua,
Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta minis-
terioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 30eko 1887/2011 Errege
Dekretua aldatzen duena, aintzat hartuta.

Garrantzi eta ospe handiko Espainiako eta nazioarteko ikertzaileek osatutako koordinazio-tal-
deak ditu ANEPek, bai eta kalitate handiko adituen oinarri handi bat ere, eta Zientzia eta Teknologia
Sistema osorako erreferentea eta babesa da horregatik.

Bigarrena.– Apirilaren 9ko 195/2013 Dekretua (EHAAren 74 zenbakia, apirilaren 18koa), Osa-
sun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, betez Osasun Sailari dagokio
osasun arloko ikerketa eta berrikuntza planifikatzea, koordinatzea eta kudeatzea, osasun-siste-
man ikerketa zein horren emaitzen aplikazioa bultzatzearen. Osasun Sailaren eskumenetako bat
da osasun-zientzien alorrean ikerketa-jarduerak planifikatzea, koordinatzea eta sustatzea, Euska-
diko osasun-sistema etengabe garatu eta hobetzeko funtsezko elementua baita hori.

Hirugarrena.— Osasun arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzak deitzen ditu Osasun Sailak, dagokion aginduaren bidez, eta aditu-txostenak behar izan ohi ditu horientzat, proposamenen ebaluazio zientifiko-teknikoa egiteko, deialdiak ebazteko hartu beharreko erabakien lagungarri.

Laugarrena.— Osasun Sailak kanpoko ebaluazio-prozesu bat abiarazi du kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzeko eta baliabideak esleitzeko prozesuari oinarri objektiboa ematearren, eta ANEPen laguntza nahi du horretarako.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, eta hauek izango dira lankidetzeta-hitzarmena arautuko duten

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Hitzarmenaren helburua.

Hauxe da hitzarmen honen helburua: Minecoren (ANEPEn bitartez) eta Osasun Sailaren arteko lankidetzeta, osasun arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen urteko deialdian jasotzen diren eskaeren ebaluazio zientifiko-teknikoa egiteko orduan.

Langile kualifikatuek egingo dituzte ebaluazio-jarduerak (Espainiako eta nazioartean izena duten atzerriko zientzialariek, teknologoek eta adituek, besteak beste), eta horiekin batera administrazio- eta kudeaketa-lanak egiteko beharrezko langileak ere arituko dira.

Bigarrena.— Jardunak.

1.— Ebaluazio-prozesua ANEPek diseinatuko du, bertan egutegia, prozesuaren faseak, adituen izendapena, ebaluazio-txostenak egitea, jardueren laburpen exekutiboa eta amaierako txostena barne hartuta.

2.— Ebaluazio zientifiko-teknikoa egiteko behar bezalako kalifikazio zientifikoa duten langileak emango ditu ANEPek, betiere osasun arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta bere ebaluatzaileentzako ordainketak zuzenean kudeatuko ditu.

3.— Hain zuzen ere, ondoko parametro hauek kontuan hartuta egingo da ebaluazio-prozesua:

- Aurkeztutako eskabideen kopurua.
- Txostenak egiteko ANEPek izendatutako adituen kopurua.
- Nazioarteko adituen ehunekoa.
- Ebaluazioen banaketa, ANEPeko arloen arabera.
- Ebaluazio-kalifikazioen banaketa, ANEPeko arloen arabera.

4.— Dokumentazioa: Osasun Sailak eskabideei dagokien deialdiaren testua emango dio ANEPi ebaluazio-prozesua hasi aurretik. Horrekin batera, ebaluazio-irizpideak ere emango dizkio, baita ebaluatu beharreko eskabideen gutxieneko datuak jasotzen dituen taula bat ere (erreferentzia, eskatzailearen izena eta abizenak, erakundea, proiektuaren izena eta dagokion ANEPen arloa). Eskabideen dokumentazio guztia ANEPen aplikazio informatikoan kargatuko du Osasun Sailak, garaiz eta modu egokian. Aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela ere egiaztatuko du, halaber. Dokumentazio guztia aipatutako aplikazio informatikoan kargatu ondoren hasiko da ANEPen ebaluazio-epea.

5.— Osasun Sailaren eskumena da ebaluazio horren ondoriozko datuak ustiatzea.

6.– ANEPek betekizun hauek izango ditu:

– Osasun Sailak ebaluazio-prozesurako emandako dokumentazioari buruzko isilpekotasuna gordetzea. Isilpekotasun bera ere eskatuko die dokumentaziora jotzen duten aditu guztiei.

– Erabilitako informazioa aztertzeko beharrezkoa den edozein balio-judizio egiteko orduan inpartziala izatea, eta alborapen oro saihestea horretan.

– Ebaluazio-prozesuan zehar erabilitako isilpeko informaziotik zuzeneko onurarik ez lortzea.

7.– Hitzarmen honen helburu modura ebaluatu beharreko prozedura ebazten duen deialdiaren behin betiko ebazpena igorriko dio Osasun Sailak ANEPI.

Laguntzen aginduaren interesdunek eta eskatzaileek aurkeztutako errekurtsoen alegazioak baloratzen lagunduko du ANEPek.

8.– Hitzarmen honen barruan egin beharreko lanak garatzeko orduan topatutako era guztietako zailtasunak garaiz jakinaraziko dizkiote elkarri aldeek; eta gauza bera egingo dute, oro har, haren garapen onari eragin diezaiokeen informazio guztiarekin, beste aldeak egoki irizten dizkion neurriak hartu ahal izan ditzan.

Hirugarrena.– Finantzaketa.

1.– Hitzarmen honetan 2014ko deialdiari dagokionez aipatutako jarduerak gauzatzeko aurrekontua 34.722,5 euro izango da gehienez –170 eskabide asko jota–; horren barruan aldi baterako ebaluatzaileei eta laguntzaileei egin beharreko ordainketa dago jasota, bai eta horien loko-mozio-, ostatu- eta dieta-gastuak ere, honako kuantifikazio-irizpide hauen arabera:

a) Aldi baterako laguntzaileei ordaindutako zenbatekoak, bai eta kanpoko ebaluatzaileen laguntzen eta txostenenak ere, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkariaren 2013ko abenduaren 5eko Ebazpena beteko du; aipatutako ebazpenaren bidez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 19. artikuluan aipatutako organoetako espezialista eta adituei, laguntzen kontzeptuan, ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoak baimentzen dira.

b) Batzordea egiten den tokitik kanpo bizi diren ebaluatzaileen dieten zenbatekoa honela likidatuko da:

– Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuko langileen 2 taldearentzat ezarritakoa izango da mantenuaren zenbatekoa.

– Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuko langileen 2 taldearentzat ezarritakoa izango da ostatuaren zenbatekoa, edo bestela, 2 taldearentzat garai jakin batzuetan eta/edo Espainiako hiri jakin batzuetan ezarritakoa.

Estatuko Administrazio Orokorreko lanpostuak betetzen ez dituzten laguntzaile edo adituentzat b) paragrafo honetan finkatutako irizpideak aplikatu ahal izateko, baina, maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak xedatutako eskakizunak bete beharko dituzte.

c) Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren arabera likidatuko dira egindako bidaien lokomozio-gastuak.

2.– Lehen klausulan aipatutako administrazio- eta kudeaketa-lanak ANEPeko langileen kontura joango dira, eta ez dute gastua handitzea ekarriko horrelakoek.

3.–Aurreko 1. puntuan aipatutako aurrekontua Osasun Sailaren kontura joango da, 2014ko gastuen aurrekontuen kontura zehazki (aurrekontu-aplikazioa: 14.0.1.08.14.0000.1.238.99.41141.002/K), eta Altxor Publikoan sartuko da ebaluazioaren azken txostenak aurkeztu eta benetan ebaluatutako eskabideei dagokien likidazioa jaso ondoren; horretarako, baina, 069 ereduko ordainketa-gutuna bidali behar da aurretik, hitzarmenari erreferentzia eginda.

Laugarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Lankidetzeta-hitzarmen hau bi aldeek sinatzeko egunean jarriko da indarrean, eta beren gain hartutako betebeharrak hitzartutakoaren arabera bete arte iraungo du, edo, nolana ere, 2014ko abenduaren 31ra arte.

Bosgarrena.– Hitzarmena baliogabetzea.

Hitzarmena iraungi egingo da, bere indarraldia amaitzeaz gain, bestelako arrazoi hauengatik ere:

- a) Hitzarmenaren sinatzaileek elkarrekin adostuta.
- b) Jarduerak egitea edo jarraitzea ezinezkoa dela edo beharrezkoa ez dela iritziz gero.
- c) Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

Aldez aurretik iraungitzen bada, bidean dauden jardueri dagokienez, benetan egindakoak likidatuko dira, betiere gauzatutakoa baliagarria izanez gero.

Aldeek beren gain hartutako betebeharren gaineko urraketa egin duen aldeari jakinaraziko zaio, eta 15 egun naturaleko epea emango zaio ez-betetze hori zuzen dezan.

Seigarrena.– Hitzarmenaren jarraipen-batzordea.

Jarraipena eta kontrola egiteko batzorde bat ezarri ahal izango da, Osasun Sailaren bi ordezkari (Osasuneko sailburuak izendatuta) eta ANEPen bi ordezkari (Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko zuzendari nagusiak izendatuta) osatuta. Aipatutako batzordeak, besteak beste, programen ebaluazio zientifiko-teknikoa koordinatuko du, ebaluazioarekin lotuta sortzen diren gatazkak ebatziko ditu, eta bermatuko du, halaber, hitzarmena behar bezala gauzatzen dela administrazio-ikuspegi-tik.

Batzordea sortzeko akordioan zehaztuko da batzordearen presidentetza eta idazkaritza nori dagozkion.

Bere eraketari, funtzionamenduari eta erabakiak harteari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoentzat jasotako araudia bete beharko du batzordeak.

Hitzarmena jarraitzeko batzordea eratzeak ez du gastua handitzea ekarriko.

Zazpigarrena.– Araubide juridikoa eta gatazken konponbidea.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluan jasotakoaren arabera. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1.c) artikuluari dagokionez, hitzarmenaren edukia ez da sartzen horren aplikazio-eremuan eta bere ezaugarrien eta baldintzen arabera zuzenduko da.

Hitzarmen honen interpretazioak eta gauzatzeak ekar litzakeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegien eta epaitegien esku jarriko dira, uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, Estatuari eta herri-erakundeei laguntza juridikoa emateari buruzko azaroaren 27ko 52/1997 Legean xedatutakoa hartu beharko da kontuan, baita uztailaren 25eko 997/2003 Dekretua, Estatuko Zerbitzu Juridikoaren Erregelamendua onartu zuena, ere.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, hasieran aipatutako toki eta egunean izenpetzen dute hitzarmen hau, ale bikoitzean.

Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko zuzendari nagusia,
MARINA PILAR VILLEGAS GRACIA ANDREA.

Osasuneko sailburuordea,
GUILLERMO VIÑEGRA GARCÍA JAUNA.

2014ko abenduaren 18a, osteguna

VII. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 19KO 35/2014 EBAZPENARENA

BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEKIKO LANKIDETZA-HITZARMEN MARKOA, KARTOGRAFIA, GEODESIA ETA LURRALDE-INFORMAZIOARI BURUZKOA

Vitoria-Gasteizen, 2014ko irailaren 23an.

BILDU DIRA:

Ana Isabel Oregi Bastarrika Andre Txit Gorena, Ingurumen eta Lurralde Politika sailburua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ordezkari gisa; Unai Rementeria Maiz Jaun Txit Argia, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakartzaren Saileko Foru Diputatua; Iñaki Errazkin Vitoria Jaun Txit Argia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Foru Diputatua.

PARTE HARTU DUTE:

Lehenengoak, Ingurumen eta Lurralde Politika sailburua den aldetik, eta Euskadiko Administrazioaren ordezkari gisa, Gobernu Kontseiluaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez hitzarmen hau sinatzeko berariaz baimendua.

Bigarrenak, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakartza Saileko Diputatua den aldetik, eta erakunde horren ordezkari gisa.

Hirugarrenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Foru Diputatua den aldetik, eta erakunde horren ordezkari gisa.

Parte hartzen dutenek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horretarako, hauxe

ADIERAZI DUTE:

I.– Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskadiko Autonomia Estatuak eskumen anitzak ematen dizkiola, bai eskusiboak, bai exekutatu eta garatzekoak, Euskadiko Autonomia Erkidegoari. Bere aldetik, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanak arautzen dituen azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, ezartzen du eskumenen banaketa. Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen artean.

II.– Eskumen horietako asko erabiltzeko, dagozkien arloak kontutan izanda -hala nola, udalerrien lurralde-mugaketak, jabari publikoko eta ondare jabariko ondasunen araubide juridikoa, mendiak, baso-ustiapienak eta zerbitzuak, abelbideak, ustiapien hidraulikoak, lurraldearen antolaketak, eta beste batzuk-, ezinbestekoa dela kalitatezko kartografia, geodesia eta lurralde-informazioa izatea.

III.– Aipatutako lan horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio ezberdinek egiten dutela, bakoitzak bere kasa, eta horrexegatik beharrezkotzat jotzen da administrazio horien arteko koordinazio handiagoa. Horretarako ezarri da, lehendabiziko urrats moduan, Lankidetzaz Hitzarmen marko bat izenpetu behar dela, Herri Administrazio ezberdinek garatzen dituzten lanak

ezagutu ahal izateko, horrela, kartografia, geodesia eta lurralde-informaziorako erabiltzen diren baliabideak eta ahaleginak ahalik eta modurik onenean aprobetxatzeko xedez.

IV.– Alderdiek interesa dutela, indarrean dagoen legedian aurrikusitako administrazioen arteko lankidetzaren markoan, kartografia, geodesia eta lurralde-informazioa sortzeko prozesua koordinatzeko, Administrazio guztien beharrei aurre egiteko produktu baliagarri bakarra lortu nahian, gizartearen informazio-eskari-mota honi erantzuna emateko behar diren kudeaketa eta gastua optimizatu ahal izateko. Zentzu berean, 2007/2 Zuzendaritzaren bitartez Komisio Europarra/EE datu espazialeko azpiegituren (INSPIRE) gainean, erabakiak hartu edo elkarte-politikak ezarri behar dituzten organoen esku jarri nahi ditu, Administrazio ezberdinen arteko espazio-datu harmonizatuak eta bateragarriak. Hori guztia dela eta, alderdiek, ados jarri ondoren, honako hitzarmen hau izenpetu dute. Hitzarmenak honako klausula hauek ditu:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen helburua, Lankidetzarako oinarriak finkatzea da, kartografia, geodesia eta lurralde-informazioaren arloko eskumenak erabiltzen direnean, eta arlo horrekin zerikusia duten arazo guztietan, alderdien interesak eta lanak koordinatzeko beharrak horrelako lankidetzara horrela aholkatzen badute. Eta hori guztia, Euskadiko Autonomia Elkartearen eremuan, eta Hitzarmen hau izenpetzen duen Administrazio bakoitzari dagozkion eskumenei utzi gabe.

Bigarrena.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien arlo horretako eskumena duten Departamentuek sinatutako Hitzarmen honen mendekoak izanik, berariazko akordioen bidez ezarriko dira egin beharreko lanak, exekuzio-epeak eta lan bakoitzaren emaitzen erabilpena eta azken xedea. Akordio horiek herri- eta administrazio-izaera izango dute, eta beraien edukia hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat etorriko da; beraien garapena ere, indarrean dagoen legedian araututa dauden tramite eta ekintzekin bat etorriko da. Menpeko hitzarmen horien gaiak zerikusia izango dute hitzarmenaren helburuarekin; hau da, kartografia, geodesia, geofisika, espazio-datuen azpiegiturak, informazio geografikoaren sistemak, teledetekzioa, fotogrametria, e.a. izango dira gaiak.

Hirugarrena.– Aurreko paragrafoan aipatutako akordioen sinaduraz aparte, batzorde bat eratzten da, zortiz kiderekin, hain zuzen ere, alderdi sinatzaile bakoitzeko bi ordezkari osaturikoa. Batzorde horren zereginak honako hauek izango dira:

a) Komunikazio eta koordinaziorako foroa izatea kartografia eta geodesiaren arloan, Euskadiko Administrazio Orokorraren eta Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean.

b) Lantaldeak sortzea, bereziak izateagatik, tratamendu espezializatua behar duten gaiak lantzeko.

Aipatutako Batzordean hartzen diren akordioak, gastu-konpromisoak hartzea suposatzen badute, akordioa hartzen duten Administrazioen aurrekontuak erabiliz ordainduko dira.

Laugarrena.– Euskadiko Administrazioko Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak Batzorderaren idazkari eta kudeaketa lanak egingo ditu.

Bosgarrena.– Hitzarmen honen indarraldia alderdiek izenpetzen duten momentuan hasiko da eta mugagabea izango da.

Eta hitzarmen honen klausuletan bildutako zehaztapenekin bat, bertaratuek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu eta izenpetu dute hitzarmena lau aletan.

Euskadiko Administrazioaren izenean,

Ingurumen eta lurralde politika sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean,

Lehendakaritzaren foru diputatua,
UNAI REMENTERIA MAIZ.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean.

Ingurumeneko eta lurralde antolaketako departamentuko foru diputatua,
IÑAKI ERRAZKIN VITORIA.